

EROSKI-K 30.000 MASKARA EMAN DIZKIO NAFARROAKO GURUTZE GORRIARI

Iruñea, 2021eko urtarrilaren 25a.- **EROSKI**k dohaintzan eman dizkio 30.000 maskarak Nafarroako [Gurutze Gorriari](#), eta kolektiborik zaugarrienentzat izango dira. Horiek ari dira gehien sufritzen COVID-19ak eragindako krisi honetan, eta osasun aldetik babestuko dituen materialean behar dira, kutsadurak saihestea funtsezkoa baita. Iruñeko Felipe Gorriti kaleko EROSKI Centerren eman dio EROSKI materiala.

Guztira, 1.000.000 maskara emango ditu dohaintzan gehien behar duten 10.000 familiarentzat baino gehiagorentzat, eta 70 bat erakunde publiko eta gizarte erakunderen bitartez banatuko dituzte, horietako bat Gurutze Gorria. Nafarroan, EROSKI 48.000 maskara banatuko ditu guztira; Huartera, Arangurenera eta Zizurrera joango dira batzuk. EROSKI horrelako ekimenak gauzatzen ari da pandemia hasi zenetik; esaterako 6,5 milioi otordu eman zizkien Elikagaien Bankuei eta martxotik %80 jaitsi du maskararen prezioa.

"EROSKI badaki nola eragiten ari den krisi hau gizartean. Lan bikaina egiten ari da Nafarroako Gurutze Gorria eta hura bezala beste zenbait erakunde; izan ere, gaur egungo egoera oso konplexua da. Hori dela eta, hainbat gauza egin ditugu hilabete hauetan askotariko erakundeekin, eta, kasu honetan, bereziki babestu nahi dugu Nafarroako Gurutze Gorria bazterketa jasaten ari diren edo jasateko arriskuan diren pertsonen eta familien oinarrizko beharrak estaltzen ari baita bere programekin", esan du EROSKIren Nafarroako hipermerkatuetako eskualde zuzendariak, Anabel Zariquiegui.

"Oso eskertuta gaude EROSKIri elkartasun erakustaldi honegatik. Dohaintza honek babes handia emango du zailtasun handiena dutenei laguntzeko orduan", esan du Gurutze Gorriak Nafarroan duen presidentek, Rafael Huartek.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)